ARMAGINTZAREN MUSEOA
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA

2024




# ARMA ZURIEN KATALOGOA


I. ALEJO SUESCUN
F. PEÑA CASTRESANA

# Edukia


1. SARRERA ..... 1
2. GLOSARIOA ..... 2
3. FITXAK ..... 3
Kubo-baioneta, 1853ko modeloa ..... 3
Yatagan baioneta, 1866ko modeloa ..... 5
Garaipen militarrez apaindutako ezpadina ..... 7
Kamineroen baioneta-matxetea ..... 11
Gutiziazko konde-sablea ..... 13
Infanteria-sablea, 1882ko modeloa ..... 15
Zalditeria arineko sablea, 1860ko modeloa ..... 17
Karabinero-sablea, 1864ko modeloa ..... 19
"Briquet" sablea ..... 21
Tiratzaile-sariko ezpata ..... 23
Infanteriako ofizialen ezpata, 1867ko modeloa ..... 25
"Briquet" sablea ..... 27
"Briquet" sablea, 1879ko modeloa ..... 29
Yatagan baioneta, 1866ko modeloa ..... 31
Lizarraga jeneralaren sablea ..... 33
1859ko xafla, hornidura-muntaketarekin ..... 35
Artilleria karlistako ofizialen sablea ..... 37
Askatasunaren Boluntarioen sablea ..... 39
YTURRIOZ y ECHEVERRIA sablea 1875 ..... 41
Zaldizko institutuen sablea, 1895eko modeloa ..... 45
Matxetea, 1881eko modeloa ..... 47
Kirol-eskrimako ezpata ..... 49

Kirol-eskrimako ezpata ....................................................................51
Daga bizkaitarra, 1878ko modeloa ....................................................53
Daga bizkaitarra, XIX. mendekoa......................................................55
Matxete kubatarra ............................................................................57
Sable-erreprodukzioa eta zorroa, 1845eko modeloa ..........................59
Kilij (sable) otomandarra eta zorroa ..................................................61
Aizto-baioneta, zorroa eta galtzarbekoa, 1893ko modeloa..................63
Aizto-baioneta, 1893ko modeloa.......................................................65
Infanteriako ofizialen sablea, 1887ko modeloa ..................................67
Matxetea, 1881eko modeloa ..............................................................69
Kubo-baioneta, 1876ko modeloa .......................................................71
Kubo-baioneta.....................................................................................73
Kubo-baioneta eta zorroa, 1853ko modeloa .....................................75
Kubo-baioneta, 1853ko modeloa .......................................................77
Sable laburra .....................................................................................79
Baioneta eta zorroa, 1874ko modeloa ...............................................81
Matxete-baioneta, 1913ko modeloa ..................................................83
Kubo-baioneta, 1876ko modeloa .......................................................85
Yatagan baioneta 1891ko modeloa.....................................................87
Kubo-baioneta, 1853ko modeloa .......................................................89
I. ERANSKINA ......................................................................................91
II. ERANSKINA .....................................................................................92
III. ERANSKINA.....................................................................................93
BIBLIOGRAFIA .....................................................................................95

# 1. SARRERA

Euskal armagintza suzko armen ekoizpena dela-eta da ezaguna. Baina arma zuriak ere egin ziren, nahiz eta aipatutakoen adinako ospea izatera iritsi ez. Horregatik, ez da harritzekoa 1914ko ekainaren 24an Eibarko Armagintzaren Museoa inauguratu zenean arma zuri horietako batzuk aurkitu izana museoaren funtsetan. Bildumako su-armekin gertatzen den bezala, pieza horien jatorria askotarikoa da: Gerra Ministerioa, Proba Bankua, dohaintza partikularrak eta hiriko fabrikatzaileak. Pieza horien artean, bi ale baizik ezin izan dira identifikatu: 1859ko ezpata-xafla bat eta sable edo kilij otomandar bat.

Museoari, historian zehar, arma zuriko ale berriak gehitu zaizkio, eta, batez ere, XIX. mendeko armamentu militarra. Haien artean, nabarmentzekoa da baioneta-kopuru handia, museoan dauden hainbat suzko armari lotuta baitaude. Gehitu diren piezak ez dira beti behar bezala erreferentziatuta egon; beraz, kasu askotan zaila da piezen jatorria zehaztea museoan dagoen dokumentazioaren arabera.

Gaur egun, jatorri askotarikoa duten 44 ezpata, sable eta baionetak osatzen dute arma zurien bilduma. Kopuru mugatua da funtsetan dagoen su-armen kopuruaren aldean, baina pieza benetan berezi batzuk ezagutzeko aukera ematen digu. Adibidez, ofizial karlisten gutiziazko arma batzuk eta ofizialentzako sari-ezpataren ale arraroa, «1. mailako tiratzailea» bereizgarria dakarrena.

Ondorioz, esan dezakegu suzko armen itsaso handi honetan arma zuriz osatutako oasi txiki bat aurkitzen dugula, zeina, esan beharrik ez dago, hiri honen historiarekin bat baitator. Horrela, gogorarazten zaigu Euskal Herriak arma zurien fabrikazioan ere hartu zuela parte, bi modutara: edo ospe handiko ekoizpen-guneetan, —hala nola Toledon— erabiliko zen materiala hornituz, edo, sarritan, industria honi hainbesteko ospea eman dioten tailerretatik ateratako ekoizpen propioarekin.

## 2. GLOSARIOA

**Adarreria:** ezpataren edo saublearen babeskia osatzen duten metalezko piezen —adarren— multzoa.
**Arma beltza:** eskrimaren jokoan, puntan botoi bat duen burdinazko arma, lustrerik eta sorbatzik gabea.
**Arma zuria:** burdinazko edo altzairuzko xafla, erasotzeko balio duena; adibidez, ezpata.
**Babeskia:** armaren xaflaren eta eskutokiaren arteko elementua, eskua babesteko balio duena.
**Besarkagailua:** arma zurien zorroetan dagoen errefortzua; han jartzen dira euste-eraztunak.
**Bizkarra:** arma zuri baten xaflaren barnealdeko ertza, gehienetan sorbatzik gabea.
**Burua:** eskutokiaren muturrean kokatzen den osagaia, eskuarki metalezkoa, arma osoa orekatzeko balio duena. Haren gainean errematxatu ohi da mihia, edo torlojuz lotu.
**Daga:** arma zuria, xafla laburrekoa, ukabila estaltzeko hornidura eta adarrak dituena; bi sorbatz izan ohi zituen.
**Damaskinatua:** apaindura-lana, urrezko edo zilarrezko harizpiak burdinazko edo beste metal bateko piezetan aldez aurretik irekitako arteka edo ildoetan sartuz egiten dena.
**Esku-babesa:** babeskitik bururantz doan luzakina, hatz-koskorrak babesteko balio duena.
**Eskutokia:** eskua jartzen den tokia, armari heltzeko; horniduraren parte bat da.
**Ezpadina:** Oso xafla estua edo triangeluarra duen ezpata, apaingarri gisa erabiltzen dena gizonezkoen jantzietan eta uniforme batzuetan.
**Ezpata:** arma zuria, luzea, zuzena, zorrotza eta ebakitzailea, hornidura eta eskutokia dituena.
**Galanda:** eskutokiaren muturretan dauden metalezko eraztunetako bakoitza.
**Gallueloa:** esku-babesaren kontrako adarraren errematea.
**Galtzarbekoa:** ezpata baten zorroa soinetik zintzilikatzeko pieza.
**Hornidura:** arma zuri baten babeskiak eta eskutokiak osatzen duten multzoa.
**Inguraka zulatzea:** papera, oihala, zura, metala edo beste gai bat marrazki bat inguratuz zulatzea.
**Kilija:** sable otomandarra.
**Kirten-azala:** labana eta aizto batzuen kirtena estaltzen edo eratzen duten bi xafletako bakoitza.
**Matxetea:** arma-erreminta, zabala, astuna eta sorbatz bakarrekoa.
**Mihia:** xaflaren luzakina, tenplatu gabea, hornidurari eusteko balio duena eta buruan errematxatu edo torlojuz lotu ohi dena.
**Monterilla:** burua eskutoki-bizkarraren gainean luzatzean eratzen den pieza; bakuna izan daiteke, edo jarraitua, galandaraino iristen bada.
**Muturrekoa:** larruzko edo zurezko zorroetan, puntaren muturra sendotzen duen metalezko pieza.
**Pabonatua:** oxido-distira duen gainazal-geruza, urdinxka, beltza edo kafe-kolorekoa; altzairuzko piezak geruza horrekin estaltzen dira haien itxura hobetzeko eta korrosioa saihesteko.
**Planoa:** xafla baten aurpegian ertzez zedarrituta bereizten den planoetako bakoitza. Zenbakitzeko, ez dira batu behar xaflaren bi aurpegietako planoak.
**Sablea:** ezpataren antzeko arma zuria, baina pixka bat kurbatua eta, eskuarki, sorbatz bakarrekoa.
**Sorbatza:** xaflan, ebakitzen duen partea.
**Tenplatu:** tenperatura jakin batetik gora berotutako material bat uretan, oliotan eta abarretan bat-batean hoztu, zenbait propietate hobetzeko.
**Trabagarria:** oihalezko edo larruzko lokarria, arma eskumuturrean finkatu eta borrokan ez galtzeko balio duena.
**Txortena:** arma baten buruaren goiko erremeatea.
**Zamaka:** zink, aluminio, magnesio eta kobrearen aleazio metalikoa.

# 3. FITXAK

| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kubo-baioneta, 1853ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 02985 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA316 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | Danborrean markatua (EO C430/ 4P/ 4388) |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua |
| **Neurriak** | |
| Danborraren luzera: | 7,50 cm |
| Luzera osoa: | 54,90 cm |
| Xaflaren luzera: | 48,50 cm |
| Pisua: | 0,36 kg |
| Danborraren diametroa: | 2,10 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Kubo-baioneta, 1853ko modelokoa, infanteriako armadaren 1867ko modeloko fusilarentzat. Egin ziren danbor-modelo guztiak baioneta bakar batetik abiatu ziren. Honetatik: *Pattern 1853 Socket Bayonet*. Jatorrian, britainiar armadako Enfield 1853 fusilarentzat sortu zen, baina ia edozein karabina edo fusiletara egokitu zitekeen. Dagokion erriflearen modeloa zehazteko, kuboaren barrualdea (21 mm) eta xaflaren luzera (48,50 cm) neurtu behar dira.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.






| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Yatagan baioneta, 1866ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03087 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA423 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "1102" markatua babeskian |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia |
| **Neurriak** | |
| Luzera: | - |
| Luzera osoa: | 68,00 cm |
| Xaflaren luzera: | - |
| Pisua: | 0,55 kg |
| Oreka-puntua: | - |
| **Sarrera- eta balorazio-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Yagatan baioneta, 1866ko modelokoa, Espainiako armadaren Mauser fusilarentzat. Modelo hau Frantzian hasi zen fabrikatzen. Jatorrian, Frantziako armadaren 1866ko modeloko Chassepot fusilarentzat pentsatuta zegoen, baina Estatu Batuetan fabrikatuta Europako armada batzuetan erabiltzen zen 1867ko modeloko Remington fusilarentzat ere egokitu zuten. Otomandar Inperioko yatagan izeneko sablea gogorarazten duen xaflaren formagatik du yagatan izena.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Garaipen militarrez apaindutako ezpadina** |
| Inbentario-zk.: | 03088 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA424 |
| Jatorria: | Alemania, Solingen |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "S&K" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia, zura, nakarra |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 91,70 cm |
| Xaflaren luzera: | 79,70 cm |
| Pisua: | 0,44 kg |
| Oreka-puntua: | 9,50 cm |
| **Sarrera- eta balorazio-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Bi sorbatzeko xafla zuzeneko ezpadina, punta hautsia duena. Letoi urreztatuzko hornidura, nakarrezko kirten-azalez estalitako zurezko eskutokia duena. Kirten-azaletako bat galdu egin da. Hornidura garaipen militarrak aipagai dituzten apaingarriz josia dago. Lehoi-burua esku-babesaren eraztunean.

Solingeneko manufaktura tipikoa. "S&K" armagin-marka (Schnitzler & Kirschbaum, Solingen). Armagin-markaren azpian azpiizenburu irakurtezin bat du.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Baioneta, 1874ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03089 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA425 A32 |
| Jatorria: | Europa |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "ƒ17485/B-G" markatua babeskian, eta "WZ0713" buruan |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 63,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 51 cm |
| Pisua: | 0,49 kg |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Baioneta, 1874ko modelokoa, Frantziako armadaren Gras fusilarentzat. Altzairu-xafla, sorbatzik gabekoa eta letoizko eskutokia duena. Erriflerako euskarriak egoera funtzionala du. Arautu zenetik XX. mendeko lehenengo laurdenera arte erabili zen modelo hau. Babeskian zenbait marka ditu: "ƒ17485" serie-zenbakia eta "B" eta "G" idatzia duten zirkulu-formako bi berrikuste-marka. Buruan, "WZ0713" marka dauka. Bizkarrean, fabrikazio-lekuak agertu behar luke, baina ezin da irakurri.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.





| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kamineroen baioneta-matxetea** |
| Inbentario-zk.: | 03090 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA426 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | Eskutokian "183" marka dauka |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 40,10 cm |
| Xaflaren luzera: | 29,5 cm |
| Pisua: | 0,65 kg |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Kamineroen baioneta-matxetea. Arma-erreminta gisa erabiltzen zen. 1842ko apirilaren 16an, Kamineroen Antolaketa eta Zerbitzuetarako Araudia onartu zen. Sustapen Ministerioaren mendekoak ziren kamineroak, eta haien zeregina zen bideak mantentzea, eta, zinpeko zaindari gisa, haiek zaintzea. Modeloa ez da zehazki identifikatu, baina eskutokia artilleriako eta ingeniaritzako tropen 1861ko modeloarenaren antzekoa da, eta xafla Espainiako armadaren 1858ko modeloko sable-baionetarenaren berdina da. Fusilarekin lotzeko mekanismoa galdu du.
Xaflaren alde distalean ebaki mekaniko bat dago.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.






| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Gutiziazko konde-sablea** |
| Inbentario-zk.: | 03091 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA427 |
| Jatorria: | Frantzia, Paris |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | “FAURE LE PAGE/ ARQ A PARIS” |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, zura, marrazo-larrua |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 100,4 cm |
| Xaflaren luzera: | 86,7 cm |
| Pisua: | 0,84 kg |
| Oreka-puntua: | 10,5 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Gutiziazko sablea, luzera osoan lore- eta mitologia-motibo ugari dituena, hornidurAren barrualdean barne. Burdinaz eta zurez egindako hornidura, monterilla jarraitua, esku-babesaren eraztuna eta hiru zubi dituena. Xafla zuzena, arteka asimetrikoa duena, zeina, bi aldeetan, bizkarrarekiko distantzia ezberdinera baitago.

Frantziako infanteriako ofizialentzako 1882ko modeloaren 'gutiziazko' bertsio bikaina. 1882ko modeloa esango zitzaion sable horrek 1845-1855eko modeloko arauzko sableak ordezkatu zituen, pixkanaka eta berez, ofizialek hura nahiago baitzuten eta imitazioaren ondorioz; beste sable horiek klasikoagoak ziren, eta eskuarentzako babes txikiagoa zuten. 1882ko modeloa zuzenean eratorria da 1870ean Frantziara itzulitako Afrikako gorputzetako ofizialek gogokoen zituzten arauz kanpoko sableetatik. Hauek ziren gorputz horiek: Atzerriko Legioa, zuavoak, oinezko ehiztariak, infanteria indigena, aljeriar tiratzaileak eta infanteria arina.

Monterillan, 9 punta lobulatuko koroa bat eta elkar txirikordatutako “O M” inizialak ditu; biak, urrezko damaskinatuan eginak. 9 punta lobulatuko koroa konde tituluari lotua dago; beraz, deduzitu behar da titulu hori zuela jabeak.

Mugimendu karlistari lotutako beste arma batzuk ere badaudenez, eta monterillako letrak M eta O izan daitezkeela onartuta, pentsa liteke “Maestrazgoko tigrea” ezizeneko Ramón Cabrera y Griñó (1806-1877) jeneral karlistari emandako Morellako konderriari egiten diola erreferentzia. FAURE LE PAGE marka Emile Henry Le Page (1840-1929) armaginarena da; luxuzko ekipamenduan espezializatua zegoen, eta Parisen zuen egoitza.

Pieza hori erreferentziatuta zegoen Eibarko museoko 1964ko arma-katalogoan.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.





| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Infanteria-sablea, 1882ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03092 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA428 |
| Jatorria: | Frantzia |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | - |



## Ezaugarri fisikoak

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, burdina, zura, marrazo-larrua, kobrezko kordoitxoa |

## Neurriak

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 96,40 cm |
| Xaflaren luzera: | 82,60 cm |
| Pisua: | 0,78 kg |
| Oreka-puntua: | 11,50 cm |

## Sarrera-datuak

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Frantziako armadaren infanteria-sablea, 1882ko modeloa. Xafla apur bat kurbatua eta arteka zabala xaflaren hasieraraino. Sorbatza eta kontrasorbatza heren ahuleraino. Burdinazko eta zurezko hornidura. Monterilla jarraitua, marrazo-larruz estalitako eskutokia eta kobrezko kordoitxoa. Marrazo-larrua apur bat askatu da ertzetan, eta agerian uzten du eskutokiko zura. Beraren araudian zehazten denaren kontra, hiru beharrean bi zubi ditu.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Zalditeria arineko sablea, 1860ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03093 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA429 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. mendea, 1876 |
| Markak: | “FCA DE TOLEDO 1876” |



## Ezaugarri fisikoak

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, burdina, zura, marrazo-larrua, letoizko kordoitxoa, larrua |

## Neurriak

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 100,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 85,50 cm |
| Pisua: | 1,07 kg |
| Oreka-puntua: | 14,50 cm |

## Sarrera-datuak

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Espainiako armadako zalditeria-tropako sablea, 1860ko modeloa, prusiar erako burdinazko hornidura duena. Esku-babes itxi sendoa, biribildua eta kurba egokian gorantz bihurtutako gallueloa duena. Monterilla jarraitua, zeinaren erdialdean bi belarri ageri baitira, eskutokian eta mihian zehar kabila bat jartzeko aukera ematen dutenak. Monterilla hori galandan ahokatzen da. Arraia-larruz forratutako zurezko eskutokia eta alpakazko alanbre sendo bakuna, gutxi markatutako hamabost galloiren artean. Barnean torloju bat du, hatz erakuslearentzako larruzko eraztun bati eusteko. Xafla apur bat kurbatua, eta sorbatza eta kontrasorbatza heren ahuleraino. Arteka zabala heren ahuletik xaflaren hasieraraino.

Xafla apur bat kurbatua, marka honekin: “FCA DE TOLEDO 1876”.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Karabinero-sablea, 1864ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03094 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA430 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "FABRICA Đ TOLEDO 1864" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia, kobrea, adarkia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 104,20 cm |
| Xaflaren luzera: | 90,20 cm |
| Pisua: | 0,89 kg |
| Oreka-puntua: | 13,00 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Espainiako erresumako armadako karabinero-ofizialen sablea, 1864ko modeloa. Xaflak bi arteka ditu lehen herenean, eta sei plano eta bi sorbatz beste bi herenetan. Eskutokiak letoizko hornidura du eta Espainiako armarria.

Xaflan bi marka ditu: "FABRICA Đ TOLEDO 1864" eta Espainiako armarria.

Eibarko museoko 1964ko arma-katalogoan aipatutako pieza.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



**Objektuaren identifikazioa** **“Briquet” sablea**

| | |
|---|---|
| Inbentario-zk.: | 03095 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA431 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m., 1834 |
| Markak: | *Real Fábrica de Toledo Año de 1834* |



**Ezaugarri fisikoak**

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia. |

**Neurriak**

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 83,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 69,30 cm |
| Pisua: | 0,96 kg |
| Oreka-puntua: | 9,50 cm |

**Sarrera-datuak**

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

“Briquet” sablea, arauz kanpokoa, *Real Fábrica de Toledo Año de 1834* marka duena, infanteriako 1818ko modeloaren antzekoa. Xafla ez dator bat 1818ko modeloarekin, 10 cm luzeagoa baita. Eskutokian kabila bat du, mihiari eusteko; horri esker, errazago aldatzen da xafla. Frantziako infanteriako “XI. urtea” sablearen modeloa kopiatzen du. “Briquet” izendapenak —literalki, txiskeroa— aipatutako sablea izendatzeko modu arruntari egiten dio erreferentzia, garai hartako txiskeroen antza baitzuen.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



## Objektuaren identifikazioa

| | |
|---|---|
| | **Tiratzaile-sariko ezpata** |
| Inbentario-zk.: | 03096 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA432 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m., 1880 |
| Markak: | “ARTILLERIA FABRICA DE TOLEDO 1880” |



## Ezaugarri fisikoak

| | |
|---|---|
| Materialak | Letoia, altzairua |

## Neurriak

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 89,7 cm |
| Xaflaren luzera: | 75,9 cm |
| Pisua: | 0,70 kg |
| Oreka-puntua: | 9 cm |

## Sarrera-datuak

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Infanteriako ofizialen arauzko ezpata, 1867ko modeloa. Xafla zuzena, letoizko hornidura. Gallueloak txakur-buru baten motibo bat du; Espainiako ofizialen leialtasun-ikurra da.

Espainiako armarriaren ordez, tiratzaileen bereizgarria du, esku-babesean eta xaflan. Bereizgarri hori bi karabinak osatzen dute, errege-koroa baten azpiko itu baten gainean jarriak. Ofizialei emandako saria. Tropari tiratzaileen lehiaketa nagusiko 1. edo 2. mailako tiratzaileen bereizgarriak ematen zitzaizkion, 1880ko irailaren 21eko Errege Aginduaren arabera, zeinean Armadaren lehenengo tiro-lehiaketarako jarraibideak argitaratu baitziren.

Lehiaketa horren helburua zen tiratzaile onak lortzea eta soldaduen artean tiro-zaletasuna zabaltzea. Hiru lehiaketa-kategoria zeuden: gorputzekoa, distritukoa (kapitaintza nagusia) eta nagusia edo gortekoa. Distrituko lehiaketan, zerbitzu-orrian sailkapena jasotzea zen ofizialentzako saria, eta, troparentzat, 1. mailako tiratzailearen bereizgarria, 15 pezetako saria eskudirutan eta hilabeteko baimena batailoi edo erregimentu bakoitzeko lehenengo lau sailkatuentzat.

Lehiaketa nagusian, sari hauek ematen ziren: ofizialentzat, diploma bat eta ezpata edo sable bat, lehentasunezko tiratzailearen bereizgarria xaflan grabatua zuena; troparentzat, diploma, lehentasunezko tiratzailearen bereizgarria eta saria (mailakatua: 250 pezeta irabazlearentzat eta hortik behera; azkenik, 50 pezeta 40.arentzat). Oinak lurrean arauzko lau jarreretako edozeinetan hartu zitekeen parte.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.





| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Infanteriako ofizialen ezpata, 1867ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03097 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA433 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m., 1874 |
| Markak: | “TOLEDO 1874” “F.A.” |



**Ezaugarri fisikoak**

| | |
|---|---|
| Materialak | Letoia, altzairua |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 90,20 cm |
| Xaflaren luzera: | 76,80 cm |
| Pisua: | 0,71 kg |
| Oreka-puntua: | 10,00 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Infanteriako ofizialen uniformeko ezpata, 1867ko modeloa. Xafla zuzena, bi heren distaletan sei plano dituena eta sorbatzik gabea heren sendoan. Letoi urreztatuzko horniduran, Espainiako armarria dago, oso higatua, eta txakur-buruaren forma duen galluelo bat (txakurra leialtasun-ikurra da). Esku-babesean “F.A.” inizialak markatuta daude.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **"Briquet" sablea** |
| Inbentario-zk.: | 03098 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA434 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | - |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 73,30 cm |
| Xaflaren luzera: | 60,30 cm |
| Pisua: | 0,85 kg |
| Oreka-puntua: | 8,00 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

"Briquet" sablea, arauz kanpokoa, infanteriako 1818ko modeloaren antzekoa. Xafla ez dator bat 1818ko modeloarekin. Mihia ez dago behar bezala sartua eskutokian: xaflaren bi aldeetan hutsune bat dago, eta, doitzeko, material batekin betea dago.

"Briquet" izenak txiskero esan nahi du, eta Frantziako infanteriaren "XI. urtea" sablea izendatzeko modu ez-ofiziala da. Sable horren modeloaren kopia da, eta izen hori eman zitzaion garaiko txiskeroen horniduraren antzekoa delako.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **"Briquet" sablea, 1879ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03099 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA435 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. mendea, 1893 |
| Markak: | "ARTA FABA DE TOLEDO 1893" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia. |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 84 cm |
| Xaflaren luzera: | 70,7 cm |
| Pisua: | 1,07 kg |
| Oreka-puntua: | 9,5 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

"Briquet" sablea, Espainiako infanteriako sarjentuentzat, 1879ko modeloa, Toledo egina 1893an. Xaflak marka hau du: "ARTA FABA DE TOLEDO 1893". Parte batean kaltetua dago: xaflaren goiko aldean zulatua dago. Letoizko hornidura, zeinean kabila bat baitu mihiari eusteko.

Modelo hau Frantziako Ann XI "Briquet" modelotik eratorria dago, zeina Frantziako tropek erabiltzen baitzuten 1804an, hau da, iraultzaren ondorengo XI. urtean.

**Artxibo grafikoa**

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Yatagan baioneta, 1866ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03100 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA436 |
| Jatorria: | Europa |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | Babeskian “T8” marka du |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 69,40 cm |
| Xaflaren luzera: | 58,5 cm |
| Pisua: | 0,65 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Yagatan baioneta, 1866ko modelokoa, Espainiako armadaren Mauser fusilarentzat. Modelo hau Frantzian hasi zen fabrikatzen. Jatorrian, Frantziako armadaren 1866ko modeloko Chassepot fusilarentzat pentsatuta zegoen, baina Estatu Batuetan fabrikatuta Europako armada batzuetan erabiltzen zen 1867ko modeloko Remington fusilarentzat ere egokitu zuten. Otomandar Inperioko yatagan izeneko sablea gogorarazten duen xaflaren formagatik du yagatan izena.

1866ko modelo arauzkoa baino luzexeagoa da. Beraz, frantziar xafla duen muntaia bat dela pentsa liteke.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| **Objektuaren identifikazioa** | **Lizarraga jeneralaren sablea** |
|---|---|
| Inbentario-zk.: | 03101 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA437 |
| Jatorria: | Frantzia, Paris |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | "ELOY LAMAMIE DE CLAIRAC"<br>"DIOS, PATRIA Y REY / AL BIZARRO Y CRISTIANO GENERAL DON ANTONIO LIZARRAGA"<br>"H FAURE LE PAGE/ ARQ A PARIS" |



**Ezaugarri fisikoak**

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, letoia, bolia, letoizko kordoitxoa, oihala |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 97,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 83,50 cm |
| Pisua: | 0,80 kg |
| Oreka-puntua: | 9,50 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Gutiziazko ofizial-sablea; xafla zuzena, bi heren distaletan artekak dituena eta heren sendoan inskripzio aberatsez hornitua dagoena. Letoi urreztatuzko hornidura, bolizko eskutokia eta letoizko kordoitxoa dituena; zati batzuetan kordoitxoa galdu du. Hornidura lore-irudi ederrekin zizelkatua, monterilla jarraitua, esku-babesaren eraztuna zubi batean banatzen da eta esku-babesa eratzen du, hura ere oso landua. Gallueloa lehoi-buru formakoa.

Xaflaren alde batean "ELOY LAMAMIE DE CLAIRAC" grabatua dago. Eloy Lamamié de Clairac Bermúdez de Castro (1858-1913) altxamendu karlistaren aldeko Salamancako abeltzain-familia bateko kidea zen. Beste aldean, honela dio: "DIOS, PATRIA Y REY / AL BIZARRO Y CRISTIANO GENERAL DON ANTONIO LIZARRAGA". Antonio Lizárraga y Esquiroz (1817-1877), karlisten aldean Gipuzkoako jeneral izendatua 1873an.

FAURE LE PAGE marka Emile Henry Le Page (1840-1929) armaginarena da. Luxuzko ekipamenduan espezializatua zegoen, Parisen.

Eibarko museoko 1964ko arma-katalogoan aipatutako pieza.

## Artxibo grafikoa
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **1859ko xafla, hornidura-muntaketarekin** |
| Inbentario-zk.: | 03102 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA438 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m., 1859 |
| Markak: | "FABRICA DE TOLEDO 1859" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia |
| **Neurriak** | |
| Luzera: | |
| Luzera osoa: | 100,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 86,00 cm |
| Pisua: | 0,97 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Xafla zuzena, "FABRICA DE TOLEDO 1859" testuaz eta Espainiako armarriaz markatua. Pabonatu- eta urreztatze-aztarnak ditu. Xafla hau aipatua dago Eibarko museoko 1914ko arma-katalogoan.

Hornidura muntaketa bat da, itxuraz erabilera edo funtziorik ez duten zenbait piezaz osatua.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Artilleriako ofizial karlisten sablea** |
| Inbentario-zk.: | 03103 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA439 |
| Jatorria: | Frantzia, Klingenthal |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "Coulaux & Cie Klingenthal" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia, adarkia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 88,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 74,00 cm |
| Pisua: | 0,84 kg |
| Oreka-puntua: | 10,50 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Armada karlistaren artilleriako ofizialen sablea. Xafla kurbatua, heren sendoan sorbatza eta kontrasorbatza dituena. Xafla kontrasorbatzean zabaldua dago. Letoizko hornidura, larruzko eskutokia eta monterilla sinplea dituena.

Frantziako armadaren 1845eko modeloaren bertsio bat da. Hornidurann "C" bat eta "7" bat daude elkarrekin txirikordatuak, Karlos VII.aren (1868-1909) marka eta "DIOS Y REY" testua. Monterillan, artilleriaren ikurra. Frantzian manufakturatutako xafla; bizkarrean "Coulaux & Cie Klingenthal" marka du, eta, xaflaren hasieran, gainean izar bat duten "C" berrikuste-markak eta bigarren marka irakurgaitz bat. Marka horien arabera, 1875 inguruan egin zela esan daiteke. Klingenthal arma zurien ekoizle garrantzitsua izan zen XIX. mendearen hasieratik, bai eta garai hartako Frantziako armadaren hornitzaile nagusia ere. Coulaux familia arduratu zen Klingenthalen arma-fabrika zuzentzeaz XIX. mende osoan. Inskribatutako datu guztiak bat datoz III. karlistadaren garaiarekin (1872-1876).

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Askatasunaren Boluntarioen sablea** |
| Inbentario-zk.: | 03104 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA440 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m., 1870 |
| Markak: | "FCA DE TOLEDO 1870" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Letoia, zura, altzairua, marrazo-larrua, kobrezko kordoitxoa |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 90,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 77,00 cm |
| Pisua: | 0,68 kg |
| Oreka-puntua: | 9,5 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Milizia nazionalaren sablea. Xafla apur bat kurbatua; sorbatza kanporantz jarraitua eta bi arteka lehenengo herenean. Eskutokiak letoizko hornidura du eta "V de L" enblema, Askatasunaren Boluntarioak esan nahi duena. Xaflan, lore-motiboen artean, "FCA DE TOLEDO 1870" markatua dago.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **YTURRIOZ y ECHEVERRIA sablea 1875** |
| Inbentario-zk.: | 03105 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA441 |
| Jatorria: | Espainia, Eibar |
| Kronologia: | XIX. m., 1875 |
| Markak: | “EN EIBAR AÑO 1875” //” FA DE YTURRIOZ Y ECHEVERRIA” |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia, zura, marrazo-larrua, kobrezko kordoitxoa |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 89,30 cm |
| Xaflaren luzera: | 76,60 cm |
| Pisua: | 0,71 kg |
| Oreka-puntua: | 15,00 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Gutiziazko sablea, ingeniari-ofizialen 1868ko ereduan inspiratua. Xafla apur bat kurbatua, fabrikatzailearen inskripzioa duena. Letoi urreztatuzko hornidura, monterilla jarraitua, zurezko eskutokia marrazo-larruz estalia eta kobrezko kordoitxoz eutsia.

Xaflan marka hau dago: “EN EIBAR AÑO 1875” //” FA DE YTURRIOZ Y ECHEVERRIA”. Fabrika horrek Lefaucheux sistemako sableak eta armak manufakturatu zituen.

Eibarko museoko 1964ko arma-katalogoan aipatutako pieza.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Infanteriako Puerto-Seguro sablea, 1906ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03106 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA442 |
| Jatorria: | Alemania (Solingen) |
| Kronologia: | XX. mendea. |
| Markak: | Marka hau du: MODELO IV PUERTO SEGURO S |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia, adarkia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 92,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 79,00 cm |
| Pisua: | 0,63 kg |
| Oreka-puntua: | 11,50 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Infanteriako ofizialen Puerto-Seguro sablea, IV motakoa. Xafla zuzena, luzera osoan arteka sakona duena, eta heren ahulean sorbatza eta kontrasorbatza. Marka hau du: "MODELO IV PUERTO SEGURO". Burdinazko hornidura, zurezko eskutokiarekin. Esku-babes lisoa hedatu egiten da esku-babesaren eraztuna eratzeko. Burua esku-babeserantz hedatzen da, zeina buruan txertatzen baita. Buruaren goiko aldean torlojua, mihiari eusteko.

Sable-prototipo bat da, arauz kanpokoa, Luis de Carvajalek —garai hartan zalditeriako kapitaina eta Puerto-Seguroko markesa— Alemaniako Weyersberg, Kirschbaum und Cie (WKC) enpresari enkargatua. Enpresa horren markak ageri dira xaflaren hasieran. Argi eta garbi ikusten da koroadun errege baten burua

Luis de Carvajalek diseinatu eta patentatu zuen modelo hau, baita beste gorputz batzuetarako modeloak ere. 1.600 aleko sorta bat eskatu zuen, armadako unitate batzuek probatu zitzaten, eta, horrela, agintariek onartzea errazagoa izan zedin.

Enkargua lau modelok osatzen zuten: zalditeriako tropa ("I modeloa"), zalditeriako ofiziala ("II modeloa"), ofizial jenerala ("III modeloa") eta infanteriako ofiziala ("IV modeloa").

1907an, eredu hori arauzko gisa hartu zen, eta Toledon bertan hasi ziren fabrikatzen. Solingenen ekoitzitako lehenengo loteko troparako ezpaten kostua Luis de Carvajal Puerto-Seguroko markesari ordaindu zitzaion; bestalde, hark ez zion inoiz bere patenteen gaineko eskubiderik erreklamatu Espainiako Estatuari.

**Artxibo grafikoa**

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Zaldizko institutuen sablea, 1895eko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03107 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA443 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "ARTILLERIA FABRICA DE TOLEDO" "825" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, zura. |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 95,8 cm |
| Xaflaren luzera: | 80,8 cm |
| Pisua: | 0,86 kg |
| Oreka-puntua: | 12 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Espainiako armadaren zaldizko institutuen troparako sablea, 1895eko modeloa. Xafla kurbatua, azken herenean sorbatza eta kontrasorbatza dituena. Hornidura altzairuzkoa da, eta intxaurrezko kirten-azal karratutxodunak ditu, forma anatomikokoak, burdinazko kabila batekin eutsiak. Xaflan, babeskiondoan, marka hauek ditu: "ARTILLERIA FABRICA DE TOLEDO", koroadun bi kainoi gurutzatu eta "825" (serie-zenbakia).

Eibarko museoko 1964ko arma-katalogoan aipatutako pieza.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Matxetea, 1881eko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03108 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA444 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m., 1891 |
| Markak: | "ARTA FABA DE TOLEDO 1891" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, zura |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 72,60 cm |
| Xaflaren luzera: | 71 cm |
| Pisua: | 0,76 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Matxetea, 1881eko modeloa. Armak yatagan erako bi kurbatura ditu; babeskiondoa du, eta sorbatza kanporantz jarraitua da; bizkar biribila du lehen bi herenetan, eta, azken herenean, sorbatza; eta marka hau du: "ARTA FABA DE TOLEDO 1891". Eskutokiak atal hauek ditu: gurutze-formako adarreria zuzena, muturrak biribilduak dituena eta aurkako noranzkoetan bihurtuak, eta mihiaren muturrera soldatutako burua. Dena altzairuzkoa da. Adarreriaren eta buruaren artean, intxaurrezko bi kirten-azal karratutxodun daude, beltzez margotuak eta bi kabilaz eutsiak.

1881eko abenduaren 22ko Errege Dekretuaren bidez arauzko izendatu zuten artilleriako, ingeniarietako, osasuneko eta administrazio militarreko troparentzat, infanteriako gastadoreentzat eta musikarientzat. Modelo honen bi bertsio daude: zaharrena, pieza hau bezala markatua, eta berriago bat, "ARTILLERÍA" "FÁBRICA DE TOLEDO" marka duena. Dokumentatua dago 1891-1892 urteetan modelo horren 1.000 ale fabrikatu zirela.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kirol-eskrimako ezpata** |
| Inbentario-zk.: | 03109 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA445 |
| Jatorria: | Frantzia, Paris |
| Kronologia: | XX. mendea |
| Markak: | "G. SOUDE PARIS" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Aluminioa, burdina, altzairua, kobrea, zura, larrua, ehuna |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 88,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 66,00 cm |
| Pisua: | 0,45 kg |
| Oreka-puntua: | Ezin da |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Kirol-eskrimako ezpata. Arma beltza da, entrenamendukoa, sorbatzik eta puntarik gabea. Eskutoki "frantsesa", larruz estalia eta metalezko buru errematxatua duena. Aluminiozko esku-babesa. Sekzio triangeluarra, heren ahulean hautsia.

Xaflak "G. SOUDE PARIS" marka du; Parisen egoitza zuen kirol-eskrimako armen fabrikatzaileari dagokio.

Pieza hori florete moduan zegoen erreferentziatuta Eibarko museoko 1964ko arma-katalogoan.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



## Objektuaren identifikazioa

**Kirol-eskrimako ezpata**

| | |
|---|---|
| Inbentario-zk.: | 03110 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA446 |
| Jatorria: | Frantzia, Paris |
| Kronologia: | XX. m. |
| Markak: | "G. SOUDE PARIS" |



## Ezaugarri fisikoak

| | |
|---|---|
| Materialak | Aluminioa, burdina, altzairua, kobrea, zura, larrua, ehuna. |

## Neurriak

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 85,5 cm |
| Xaflaren luzera: | 63,5 cm |
| Pisua: | 0,45 kg |
| Oreka-puntua: | Ez da posible |

## Sarrera-datuak

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Kirol-eskrimako ezpata. Arma beltza da, entrenamendukoa, sorbatzik eta puntarik gabea. Eskutoki "frantsesa", larruz estalia, metalezko buru errematxatuarekin. Aluminiozko esku-babesa. Sekzio triangeluarreko xafla, heren ahulean hautsia.

Xaflak "G. SOUDE PARIS" marka du. Parisko kirol-eskrimako armagin bat da.

Eibarko museoko 1964ko arma-katalogoan florete gisa aipatutako pieza.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



**Objektuaren identifikazioa** | **Daga bizkaitarra, 1878ko modeloa**

| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Daga bizkaitarra, 1878ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03111 |
| Beste erreferentzia batzuk: | |
| Jatorria: | Toledo, Espainia |
| Kronologia: | XIX. m., 1878 |
| Markak: | "Fábrica de Toledo 1878" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, zura, larrua |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 58,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 46,60 cm |
| Adarreria: | 32,20 cm |
| Pisua: | 0,86 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

XVII-XVIII. mendeetako daga bizkaitar baten erreprodukzioa, guztiz tailatua eta xaflan eta belan apaingarri landuak dituena. Xafla osoan apaingarri begetalak ikus ditzakegu; bi eraztun itxi ditu eta kontrasorbatz zerraduna. Xaflan "Fabrica de Toledo 1878" marka du. Babeskiondoan ez du sargunerik hatz lodiaren bidez xafla kontrolatzeko.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



**Objektuaren identifikazioa** | **Daga bizkaitarra, XIX. mendekoa**

| | |
|---|---|
| Inbentario-zk.: | 03112 |
| Beste erreferentzia batzuk: | |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "Fábrica de Toledo" |



**Ezaugarri fisikoak**

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, burdina, zura, larrua |

**Neurriak**

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 58,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 45,80 cm |
| Adarreria: | 25,50 cm |
| Pisua: | 0,75 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |

**Sarrera-datuak**

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

XVII-XVIII. mendeetako daga bizkaitar baten erreprodukzioa, guztiz tailatua, xaflan apaingarri landuak dituena eta Espainiako inperioko armarria duen bela, inguraka zulatua. Xafla osoan apaingarri begetalak ageri dira, bai eta kasketa daraman zaldun bat ere. Xaflak "Fabrica de Toledo" marka du. Pabonatu- eta urreztatze-aztarnak ageri dira babeskiondoan. Babeskiondoan ez dago hatz-sargunerik eta bela buruan sartzen da; xehetasun horiek adierazten dute erreprodukzio bat dela.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.





| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Matxete kubatarra** |
| Inbentario-zk.: | 03113 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA449 |
| Jatorria: | Alemania, Elberfeld |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "FERNANDO ESSER / ELBERFELD" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia, adarkia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 84,40 cm |
| Xaflaren luzera: | 71,40 cm |
| Pisua: | 0,63 kg |
| Oreka-puntua: | 17,00 cm |
| **Sarrera- eta balorazio-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Altzairuzko matxetea; sorbatz bakarreko xafla eta adarkizko kirten-azalak, trabagarria pasatzeko zulo bat dutenak. Manufakturak aditzera ematen du jatorrizko kirten-azalak oraingoekin ordezkatu direla.

Xaflan, "FERNANDO ESSER / ELBERFELD", fabrikatzailearen marka eta neurri batean ezabatuta dagoen erregistro-zenbakia. Fabrikatzaile horrek erabiltzen zuen logotipoa zaldiko zutitu bat zen, baina hori ez da ageri piezan; beharbada, manipulatua izan delako, kirten-azalen egoeratik deduzitzen denez.

Alemaniako matxeteek banaketa zabala izan zuten Amerikan; hori dela eta, pieza honek Espainiako itsasoz haraindiko lurraldeekin erlazioa duela pentsa daiteke.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



## Objektuaren identifikazioa

**Sable-erreprodukzioa eta zorroa, 1845eko modeloa**

| | |
|---|---|
| Inbentario-zk.: | 03114 |
| Beste erreferentzia batzuk: | |
| Jatorria: | Europa |
| Kronologia: | XX. m. |
| Markak: | - |



## Ezaugarri fisikoak

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, zamaka, adarkia |

## Neurriak

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 91,10 cm |
| Xaflaren luzera: | 75,60 cm |
| Pisua: | 0,81 kg |
| Oreka-puntua: | 11,00 cm |

## Sarrera-datuak

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Frantziako armadaren infanteriako ofizialen sablea, 1845eko modeloa. Xafla kurbatuko sablea, sorbatza eta kontrasorbatza dituena. Hornidura zamak nikeleztatuzkoa, hau da, metal-aleazioz osatua —zinka, bereziki—. Monterilla esku-babeserantz bihurtua. Adarrezko eskutokia.

Metalezko zorroa, bi besarkagailu dituena.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kilij (sable) otomandarra eta zorroa** |
| Inbentario-zk.: | 03115 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA451 A23 |
| Jatorria: | Otomandar Inperioa |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | - |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, letoia, larrua, zura, zilarra, adarkia |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 86,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 73,50 cm |
| Pisua: | 0,62 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Kilij sablea eta zorroa, XIX. mendeko Otomandar Inperioko tropen ohikoa. Xafla kurbatu samarra, kilij motakoa (turkieraz ezpata esan nahi du) eta oso punta zorrotza duena. Hornidura hondatua dago: babeskia galdu du, baina adarkizko eskutokiaren zati nagusiak hor jarraitzen du. Buru biribildua, trabagarrirako zuloa duena.



Kilij baten hornidurararen itxura, elementu guztiak dituena.

Zurezko zorroa, larruz forratua eta letoi urreztatuzko apaingarriak dituena. Ahoko handia, barruan artekatuta, sablea ateratzeko. Metal zilarreztatuzko muturreko handia.

Sable mota honek interes handia piztu zuen mendebaldeko korronte orientalisten artean. Estiloa kopiatzera heldu ziren, mendebaldar armada askotako “turkiar erako” sableetan.

Arma hau Eibarko museoko 1914ko arma-katalogoan aipatua dago.

### Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.

| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Aizto-baioneta, zorroa eta galtzarbekoa, 1893ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03116 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA452 A24 |
| Jatorria: | Alemania, Suhl |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | - |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia, zura, larrua |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | Baioneta 37,60 cm-koa, zorroa 32,20 cm-koa |
| Xaflaren luzera: | |
| Pisua: | Baioneta 0,36 kg-koa, zorroa 0,57 kg-koa |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Espainiako armadaren aizto-baioneta, 1893ko modeloa. Altzairuzko xafla, intxaurrezko eskutokia duena. Xaflak arteka bat du luzera osoan. Buruak malguki bat du, Espainiako Mauser fusilean egokitzeko; pieza honetan ez du funtzionaltasuna galdu. Aizto-baioneta modelo honetan, bi bertsio ia berdin daude; pisuan bakarrik desberdintzen dira. Toledon (Espainia) fabrikatutakoak 0,40 kg-ko pisua du. Espainiako gobernuaren enkarguz Simson & Co-k (Suhl, Alemania) egindakoa apur bat arinagoa da; hori da pieza honen kasua.

Aizto-baioneta honekin datorren zorroa larru beltzezkoa da, eta letoizko karela, ahokoa eta muturrekoa ditu; ez da pieza honi dagokion arauzkoa. Larruzko galtzarbeko batean sartua dago; ez dagokio hari, baina baliteke aizto-baionetari dagokiona izatea.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



## Objektuaren identifikazioa

| | |
|---|---|
| | **Aizto-baioneta, 1893ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03117 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA453 A25 |
| Jatorria: | Alemania, Suhl |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | - |



## Ezaugarri fisikoak

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, burdina, zura |

## Neurriak

| | |
|---|---|
| Luzera osoa: | 36,00 cm |
| Xaflaren luzera: | |
| Pisua: | 0,28 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |

## Sarrera-datuak

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Aizto-baioneta, 1893ko modeloa, Espainiako armadarena. Altzairuzko xafla, eta intxaurrezko eskutokia. Xaflak arteka bat du luze-zabal osoan. Buruak malguki bat du, Espainiako Mauser fusilean egokitzeko; pieza honetan, galdua dago.

Aizto-baioneta modelo honetatik pisuan baino desberdintzen ez diren bi bertsio daude. Toledon (Espainia) fabrikatutakoak 0,40 kg-ko pisua du. Espainiako gobernuaren enkarguz Simson & Co-k (Suhl, Alemania) egindakoak 0,38 kg ditu. Kasu honetan, eusteko mekanismoa galdua dagoenez, pisua apur bat txikiagoa da.

**Artxibo grafikoa**

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Infanteriako ofizialen sablea, 1887ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03118 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA454 A26 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | “ARTA FABA”<br>Mihian, “L” |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 82,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 78,00 cm |
| Pisua: | 0,51 kg |
| Oreka-puntua: | 10,50 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Espainiako armadako infanteriako ofizialen sablea, 1887ko modeloa. Burdinazko hornidura, eskutokia guztiz galdu du; hala ere, mihiak esku-babesean errematxatuta jarraitzen du. Xafla apur bat kurbatua, eta sorbatza eta kontrasorbatza erdiraino. Eskutokia galdu du, eta, horri esker, “L” formako berrikuste-marka bat ageri da mihian. Mihiaren beste aldean marka irakurgaitz bat dago.

“ART$^{A}$ FAB$^{A}$” marka duen xaflan, inskripzioaren gainerakoa interpretatzen zaila da, higadura dela eta, baina “DE TOLEDO” jarri behar luke, bai eta fabrikazio-urtea ere, beharbada 1892.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Matxetea, 1881eko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03119 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA455 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XIX. m., 1891 |
| Markak: | "FAB[A] ART[A] DE TOLEDO 1891" "24" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, zura |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 72,9 cm |
| Xaflaren luzera: | 59,3 cm |
| Pisua: | 0,79 kg |
| Oreka-puntua: | 15,5 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Matxetea, 1881eko modeloa. Armak yatagan erako bi kurbaturako xafla du; babeskiondoa du, sorbatza kanporantz jarraitua eta bizkar biribila lehen bi herenetan, eta, azkenean, sorbatza; marka hauek ditu: "ARTA FABA DE TOLEDO 1891" eta "24" (serie-zenbakia). Eskutokiak atal hauek ditu: gurutze-formako adarreria zuzena, muturrak biribilduak dituena eta aurkako noranzkoetan bihurtuak, eta mihiaren muturrera soldatutako burua. Dena altzairuzkoa da. Adarreriaren eta buruaren artean, intxaurrezko bi kirten-azal karratutxodun daude, beltzez margotuak eta bi kabilaz eutsiak.

1881eko abenduaren 22ko Errege Dekretuaren bidez arauzko izendatu zuten artilleriako, ingeniarietako, osasuneko eta administrazio militarreko troparentzat, infanteriako gastadoreentzat eta musikarientzat. Modelo honen bi bertsio daude: zaharrena, pieza hau bezala markatua, eta berriago bat, "ARTILLERÍA" "FÁBRICA DE TOLEDO" marka duena. Dokumentatua dago 1891-1892 urteetan modelo horren 1.000 ale fabrikatu zirela.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kubo-baioneta, 1876ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03120 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA456 A28 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | Danborrean markatua (8) |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 62,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 56,50 cm |
| Pisua: | 0,40 kg |
| Danborraren diametroa: | 1,20 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Espainiako armadaren kubo-baioneta, 1876ko modelokoa, “bandazko” eraztuna duena, bai eta Guardia Zibilaren 1846ko modeloaren karabinarako egokitzapena ere. Sekzio triangeluarreko baioneta, zenbait errifle eta karabina motatan kokatzeko danborra duena. Kuboaren barrualdean, dagokion suzko armaren kalibrea adierazia dago: 12 kalibrea.

Egin ziren danbor-modelo guztien abiapuntua baioneta bakarra izan zen: *Pattern 1853 Socket Bayonet* izenekoa, jatorrian Erresuma Batuko armadako Enfield 1853 fusilarentzat sortua, baina ia edozein karabina edo fusiletara egokitu zitekeena.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kubo-baioneta** |
| Inbentario-zk.: | 03121 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA457 A29 |
| Jatorria: | Europa |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | - |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua |
| **Neurriak** | |
| Danborraren luzera: | 7,00 cm |
| Luzera osoa: | 52,20 cm |
| Xaflaren luzera: | 47,00 cm |
| Pisua: | 0,29 kg |
| Danborraren diametroa: | 1,70 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Sekzio triangeluarreko baioneta, zenbait errifle eta karabina motatan kokatzeko kuboa duena. Arma hondatua dagoenez, zaila da piezaren jatorria zehatzago jakitea.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.






| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kubo-baioneta eta zorroa, 1853ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03122 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA458 A30 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | Danborrean markatua (JD 579/ 54) |





| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua eta larrua |
| **Neurriak** | |
| Danborraren luzera: | 7,60 cm |
| Luzera osoa: | 53,20 cm |
| Xaflaren luzera: | 46,70 cm |
| Pisua: | 0,36 kg |
| Danborraren diametroa: | 1,96 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Kubo-baioneta, 1853ko modeloa, Espainiako armadako 1867ko modeloko infanteriako fusilarentzat. Eraztuna alderantziz muntatua dago, kontserbatze-lan baten ondoren muntatzeko egindako saiakera baten ondorioz. Errifle elkartuaren modeloa zehazteko, kuboaren barrualdea (19,6 mm) eta xaflaren luzera (46,70 cm) neurtu behar dira.

Pieza honekin batera arauzko larruzko zorro bat dago.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.






| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kubo-baioneta, 1853ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03123 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA459 A31 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | Danborrean markatua (EJ 681/ 55) |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materia eta/edo euskarria: | Metala |
| Materialak | Altzairua |
| **Neurriak** | |
| Danborraren luzera: | 7,60 cm |
| Luzera osoa: | 53,50 cm |
| Xaflaren luzera: | 47,00 cm |
| Pisua: | 0,36 kg |
| Danborraren diametroa: | 1,96 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Kubo-baioneta, 1853ko modeloa, Espainiako armadako 1867ko modeloko infanteriako fusilarentzat. Sekzio triangeluarreko baioneta, zenbait errifle eta karabina motatan kokatzeko kuboa duena.

Errifle elkartuaren modeloa zehazteko, kuboaren barrualdea (19,6 mm) eta xaflaren luzera (47,00 cm) neurtu behar dira.

**Artxibo grafikoa**

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.






| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Sable laburra** |
| Inbentario-zk.: | 03124 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA460 |
| Jatorria: | Europa |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | - |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 73,00 cm |
| Xaflaren luzera: | 60,50 cm |
| Pisua: | 0,57 kg |
| Oreka-puntua: | 11,00 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Sable laburra, zenbait pieza elkartuta lortua. Xafla zuzena, luzera osoan bi sorbatz dituena. Burdinazko hornidura, esku-babesaren eraztuna duena. Eskutokiaren parterik handiena galdua du, eta haren ertz metalikoa soilik geratzen da. Zurezko kirten-azalak izango zituela pentsa daiteke.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Baioneta eta zorroa, 1874ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 03125 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA461 A34 |
| Jatorria: | Austria, Steyr |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | "RT3617" "D" "M" "4708" |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, letoia, zura |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | Baioneta 64,40 cm-koa, zorroa 53,60 cm-koa |
| Xaflaren luzera: | |
| Pisua: | Baioneta 0,59 kg-koa, zorroa 0,26 kg-koa |
| Oreka-puntua: | ez da aplikagarria |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Baioneta, 1874ko modelokoa, Frantziako armadaren Gras fusilarentzat. Xafla triangeluarra, burdinazko besarkagailua duena eta zurezko eta letoizko eskutokia. Babeskian zenbait marka ditu: "RT3617" serie-zenbakia eta bi zirkulu, koroadun "D" batekin eta "M" batekin. Erriflearen euskarriaren egoera funtzionala da. Baioneta-mota hau Austrian fabrikatu zen Frantziako armadarentzat.

Metalezko zorroa, "4708" serie-zenbakia duena —partez ezabatua—.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| **Objektuaren identifikazioa** | **Matxete-baioneta, 1913ko modeloa** |
|---|---|
| Inbentario-zk.: | 006170 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA428 |
| Jatorria: | Espainia, Toledo |
| Kronologia: | XX. m. |
| Markak: | "ARTILLERÍA F$^{CA}$ NACIONAL TOLEDO" "63028 D" "U" |



| **Ezaugarri fisikoak** | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua, burdina, zura |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 52,50 cm |
| Xaflaren luzera: | |
| Pisua: | 0,52 kg |
| Oreka-puntua: | ez da aplikagarria |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Matxete-baioneta, 1913ko modeloa, Espainiako armadaren Mauser fusilarentzat. Altzairuzko xaflak luzera osoan arteka handia du, eta bizkar biribildua. Burdinazko hornidura, bi kabilaren bidez eutsitako intxaurrezko kirten-azalak dituena.

Xaflan, marka hau: "ARTILLERÍA F$^{CA}$ NACIONAL TOLEDO" "63028 D" serie-zenbakia. Horniduran, "U" marka.

## Artxibo grafikoa

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Kubo-baioneta, 1876ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 06192 |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA718 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | - |



| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua |
| **Neurriak** | |
| Danborraren luzera: | 6,80 cm |
| Luzera osoa: | 60,30 cm |
| Xaflaren luzera: | 54,90 cm |
| Pisua: | 0,36 kg |
| Danborraren diametroa: | 1,85 cm |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

Kubo-baioneta, 1876ko modeloa, Espainiako armadako infanteriako 1871ko modeloko fusilarentzat. Sekzio triangeluarreko baioneta, eutsiz kokatzeko kuboa duena. Egin ziren danbor-modelo guztiak baioneta bakar batetik abiatu ziren. Honetatik: *Pattern 1853 Socket Bayonet*. Jatorrian, Erresuma Batuko armadako Enfield 1853 fusilarentzat sortu zen, baina ia edozein karabina edo fusiletara egokitu zitekeen.

Zein errifle-modelo dagokion zehazteko, kuboaren barrualdea neurtu behar da (18,5 mm/21 mm), bai eta xaflaren luzera ere (54,90 cm). Modelo honetan, xafla 12 cm luzeagoa da aurrekariarena baino (1853ko modeloa); hala ere, pisua 360 gramoan mantentzen da.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.






| | |
|---|---|
| **Objektuaren identifikazioa** | **Baioneta, 1891ko modeloa** |
| Inbentario-zk.: | 09134 |
| Beste erreferentzia batzuk: | |
| Jatorria: | Italia |
| Kronologia: | XIX. m. |
| Markak: | Ez dira ikusten |




| | |
|---|---|
| **Ezaugarri fisikoak** | |
| Materialak | Altzairua, burdina, zura |
| **Neurriak** | |
| Luzera osoa: | 41,00 cm |
| Xaflaren luzera: | |
| Pisua: | 0,28 kg |
| Oreka-puntua: | Ez dagokio |
| **Sarrera-datuak** | |
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

## Deskribapena

Baioneta, 1891/97 TS modeloa, Italiako armadaren 1891eko Mannlicher-Carcano errifleárentzat. Altzairuzko xafla, luzeraren parterik handienean artekatua. Burdinazko eskutokia, zurezko kirten-azalekin. Gaizki kontserbatuta dagoenez, ezin dira markak ikusi, eta babeskiaren materialaren parte bat galdu du.

**Artxibo grafikoa**
2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.





**Objektuaren identifikazioa** | **Kubo-baioneta, 1853ko modeloa**

| | |
|---|---|
| Inbentario-zk.: | Zenbakirik gabea |
| Beste erreferentzia batzuk: | EA 797 |
| Jatorria: | Espainia |
| Kronologia: | XIX. mendea. |
| Markak: | Danborrean markatua (EJ 681/ 55) |



**Ezaugarri fisikoak**

| | |
|---|---|
| Materialak | Altzairua |

**Neurriak**

| | |
|---|---|
| Danborraren luzera: | 7,50 cm |
| Luzera osoa: | 54,40 cm |
| Xaflaren luzera: | 48,20 cm |
| Pisua: | 0,36 kg |
| Danborraren diametroa: | 1,82 cm |

**Sarrera-datuak**

| | |
|---|---|
| Sarrera-mota: | Dohaintza |
| Sarrera-iturria: | EIBARKO ARMERIA ESKOLA |

**Deskribapena**

Kubo-baioneta, 1853ko modelokoa, infanteriako armadaren 1867ko modeloko fusilarentzat. Danbor-baioneta, sekzio triangeluarreko zenbait errifle eta karabina motatan kokatzeko pentsatua. Egin ziren danbor-modelo guztien abiapuntua baioneta bakarra izan zen: *Pattern 1853 Socket Bayonet* izenekoa, jatorrian britainiar armadako Enfield 1853 fusilarentzat sortua, baina ia edozein karabina edo fusiletara egokitu zitekeena.

Baioneta-modelo hau ahokatu gabe hasi zen erabiltzen 1697az geroztik, baina ez zen ongi egokitzen eta erori egiten zen. Horregatik, denborarekin aldatuz joan zen pieza honek duen ahokadura finkora iritsi arte. Zein errifle-modelo dagokion zehazteko, kuboaren barrualdea neurtu behar da (1,82 cm), bai eta xaflaren luzera ere (48,20 cm).

**Artxibo grafikoa**

2004/12/27: Argazki digitala - Digitala: Arma zuria (JPG) Armagintzaren Museoa.



## I.

1914ko “Museo de Armería de Eibar” liburuko arma zurien zerrendaren laburpena.

1- Matxete kubatarra, Placido Zuloaga.
2- Matxete kubatarra, Placido Zuloaga.
3- Gastadore-matxetea, 1800-1825, Gabriel Benito de Ibarzabal.
4- "Fabrica de Toledo 1859” ezpata-xafla.
5- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
6- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
7- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
8- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
9- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
10- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
11- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
12- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
13- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
14- Sastakai-xafla, Toledo, Teodoro Ibarzabal.
15- Arabiar alfanjea; zurezko kirten artekatua.

## II.

Eibarko Armagintzaren Museoaren arma zurien 1964ko katalogoko zerrendaren

laburpena. A BEIRA-ARASA

- Sable bat; suge-larruzko eskutokia eta burdinazko hornidura bozeldua. Xaflaren atzeko erdia bozeldua dago, eta inskripzio hau du: “Fauré le Page Arqr. à Paris”.
- Sable bat, esku-babesa duena.
- Sable bat; burdinazko esku-babesa eta suge-larruzko eskutokia.
- Sable bat, Toledon 1864an fabrikatua; esku-babes bozeldua eta armarri bat ditu.
- Bi sable, Toledon 1880an fabrikatuak; brontzezko esku-babesa.
- Frantziako sable bat; letoizko eskutokia.
- Sable frantsesa, letoizko eskutokiarekin.
- Sable bat; brontzezko eskutokia eta esku-babesa. Xaflan inskripzio hau du: "Arta Faba. Toledo 1893".
- Bi sable eta matxete bat, Frantziakoak; letoizko eskutokia.
- Florete bat.

B BEIRA-ARASA

- Sable bat; bolizko eskutokia eta brontzezko esku-babes bozeldua. Xaflaren erdia gubilez grabatua dago, eta inskripzio hau du: "Fauré de Page Arqr. à Paris. Eloy Lamamié de Clayrac".
- Sable bat; zurezko eskutokia eta brontzezko esku-babes moldeatua.
- Sable bat; burdinazko eskutokia eta gubilez grabatutako esku-babesa. Xaflaren atzeko erdian inskripzio hau du: "Fbdo. en Toledo, en 1859".
- Sable bat; brontzezko esku-babesa, xaflaren atzeko erdian gubilez grabatua eta inskripzio hau duena: "Fab. Toledo 1780".
- Sable bat, brontzezko esku-babesarekin, xaflaren atzeko erdian gubilez grabatua, inskripzio honekin: "Fab. en Eibar, en 1875".
- Sable bat; burdinazko esku-babesa.
- Sable bat; burdinazko esku-babesa eta inskripzio hau: "Artillera Fábrica de Toledo".
- Sable bat; zurezko eskutokia eta inskripzio hau: "Fca. Toledo 1891".
- Forete bat.
- Bi sable; burdinazko esku-babesa, xaflan bozelduak eta inskripzio hau: "Toledo 1878".

## III.

Eibarko Arma Museoaren arma zurien 1984ko katalogoaren zerrendaren laburpena.

A BEIRA-ARASA

A-1. SABLE bat; xafla zuzena, bi sorbatz eta bi arteka, apaindura grabatua eta marka hau: LE PAGE. ARQUE. A PARIS. Eskutokia forratua eta hiru adar dituen burdinazko hornidura.
A-2. SABLEA; sorbatza kanporantz jarraitua duen xafla, azken herenean sorbatz bikoa, lau planotan; bi adarreko hornidura.
A-3. SABLEA, zalditeria arinerako arauzkoa, prusiar modeloa.
A-4. Ofizialen EZPATA; xaflak bi arteka ditu lehen herenean eta sei planokoa da, eta sorbatz bikoa da beste bi herenetan. Eskutokiak letoizko hornidura du, zeinean Espainiako armarria ageri baita; Toledoko fabrikako marka du, 1864. urtekoa.
A-5. Bi EZPATA, arauzkoak infanteriako ofizialentzat, 1867ko modelokoak; Toledoko fabrikako marka dute, 1880. urtekoa.
A-6 eta 7. Arauzko bi SABLE, arauzkoak granadarien troparako, 1818ko modelokoak.
A-8. Oinezko sarjentuentzako SABLEA; Toledoko fabrikako marka eta 1893ko data.

B BEIRA-ARASA

A-11. Ofizialen EZPATA; xaflak lau arteka ditu lehenengo herenean; sorbatz bikoa da, eta lau planokoa gainerakoan. Grabatuak ditu, eta eta ELOY LAMAMIE DE CLAYRAC-entzako eskaintza. Bolizko eskutokia eta adar bakarreko hornidura. I. FAURE LE PAGE, ARQUE. A PARIS marka du.

A-12. Zalditeriako ofizialentzako EZPATA; artisau-eskutokia eta Toledoko fabrikan 1859an markatutako xafla.

A-13. Armada karlistako ofizialen SABLEA; xafla apur bat kurbatua eta artekaduna; artekak eta sorbatza kanporantz jarraituak. Eskutokiak letoizko hornidura du, bi adarrekoa; Karlos VII.a erregegaiaren Errege Zifra ageri da.

A-14. Milizia Nazionalaren SABLEA; xafla apur bat kurbatua, sorbatza kanporantz jarraitua eta bi arteka lehenengo herenean. Eskutokiak letoizko hornidura du eta «Askatasunaren Boluntario»en enblema. Xafla Toledon 1870ean markatua. A-15. Oinezko institutuen ofizialentzako SABLEA; xaflan markatua: 1875 data eta EN EIBAR inskripzioa.

A-16. Ofizialentzako SABLE-EZPATA, Puerto-Seguro modeloa.

A-17. SABLEA; xaflan inskripzio hau du markatua: ARTILLERIA, FABRICA DE TOLEDO. A-18. SABLEA; markarik gabea, zurezko eskutokia eta letoizko hornidura.

A-19. Eskrimako FLORETE-bikotea.

C BEIRA-ARASA

A-9. Baioneta; 1866ko frantziar modeloaren antzeko ezaugarriak ditu. Beharbada, Euskalduna fabrikako Chassepot fusilen ekoizpenerako egina.
A-20. Toledoko fabrikako ezker eskuko bi DAGAren erreprodukzioa. A-21. MATXETEA, itsasoz haraindiko armadak Kuban erabilia.
A-22. Arauzko SABLEA, frantziar modelokoa.
A-23. Ipar Afrikako SABLEA, zorroduna.
A-24. AIZTO-BAIONETA, 1893ko modeloa, 1906an Toledon markatua. (Ramiro Larrañagaren dohaintza).
A-25. MATXETE-BAIONETA, Mauser fusilarentzat; jatorrizko zorroa. (Ramiro Larrañagaren dohaintza).

D BEIRA-ARASA

A-26. Ofizialen SABLEA; xafla kurbatua. (Ramiro Larrañagaren dohaintza). A-27. SABLEA; xaflan inskripzio hau du markatua: FCA. TOLEDO 1891.
A-28. KUBO-BAIONETA, 1857ko modeloa. (Ramiro Larrañagaren dohaintza).
A-29, 30, 31. KUBO-BAIONETA, 1871ko modeloa (Ramiro Larrañagaren dohaintza). A-33. SABLEA, xafla zuzenekoa, adar bakarreko hornidura.
A-34. EZPATA-BAIONETA, zorroduna.

OHARRA: Ramiro Larrañagak museo honi emandako armetako batzuk Soraluzen jaso zituen, bertako Santa Ana jaia zela-eta lau gremioei buruzko antzezlanerako erabili zirenean (kanoigileak, giltzagileak, kutxagileak eta uhalgileak). Beste batzuk bereak zituen, eta beste batzuk Euskalduna fabrikaren eraikina eraitsi zutenean eskuratu zituen, 1976an.

# BIBLIOGRAFIA


- FERNÁNDEZ, Víctor (ed.)(1914). *Museo de Armería de Eibar*. Eibar.
- *Catálogo Museo de armas de Eibar*. Eibar: Museo de Eibar, 1964.
- Eibarko Arma Museoaren katalogoa. Eibarko Museoa, 1984.

- ALEJO SUESCUN, I. (2009). *Catálogo del Museo de Armería de Álava*, Vol. III, Arabako Foru Aldundia. Gasteiz.
- BARCELÓ RUBÍ, B. (2002). *3 Siglos de armamento portátil en España*. Cala Millor: Bernat Barceló Rubí.
- BARCELÓ RUBÍ, B. (1976). *Armamento portátil español 1764-1939*. Madril: San Martín.
- BORJA PÉREZ, J. (2004). *Catálogo razonado de las armas de fuego del Museo del ejército*. Madril: Centro de publicaciones de Defensa.
- BOTTET, M. (2015). *L'arme Blanche de Guerre Francaise*. St Laurent le Minier: Decoopman.
- BURTON, R.F. (1987). *The Book of Sword*. New York: Dover.
- CALVÓ, J.L. (1976). *Bayonetas españolas*. Delegación de Cataluña y Baleares.
- CALVÓ, J.L. (2011). *Bayonetas de cubo españolas*. Scribd-eko artikulua. *https://es.scribd.com/document/58242516/BAYONETAS-DE-CUBO-ESPANOLAS*
- DE MORLA, T. (1883). *Tratado de artillería*. E. Josef Espinosa.
- DE SALAS, R. (1893). *Prontuario de artillería*. E. Aguado.
- DE VALENCIA DE DON JUAN, CONDE VDO. (2008). *Catalogo histórico-descriptivo de la Real Armería de Madrid*. Valladolid: Facs.
- DEL FRAXNO, CLAUDIO Y DE BOULIGNUY, J. (1873). *Artillería, Acero y armas blancas*. Eduardo Baeza.
- L'HOSTE, J.; BUIGNE, J.-J. (2000). *Armes Blanches*. Paris. Portail.
- PEREZ GARZON, J.S. (1978). *Milicia Nacional y Revolución burguesa*. C.S.I.C.
- SOPENA GARRETA, J. (1978). *Historia del Armamento Español*. V. liburukia. Madril: J.S.G.
- STONE, G.C. (1934). *A Glossary of the Construction, Decoration and Use of Arms and Armor in all Countries and in all Times*. New York: Dover Publications.
- TOLEDO MOMPARLER, V. (2022). *Enciclopedia de las espadas españolas*. Madril: Vicente Toledo Momparler.